

BBVA FUNDAZIOA: IKERTZAILE ETA SORTZAILE KULTURALENTZAKO LEONARDO LAGUNTZAK (2023)

Web

Lehentasunezko ikerketa arloak:

- ✓ Oinarrizko Zientziak (Fisika, Kimika)
- ✓ Biologia eta Biomedikuntza
- ✓ Ingurumenaren eta lurraren zientziak
- ✓ Ingeniaritzak
- ✓ Konputazio Zientziak eta Datu Zientzia
- ✓ Gizarte Zientziak
- ✓ Giza Zientziak
- ✓ Arte Plastikoak
- ✓ Musika eta Opera
- ✓ Literatura Sormena eta Antzerkia.

Proiektuen iraupena:

Proiektuek 12 eta 18 hilabete bitarteko iraupena izango dute.

Finantzaketa:

Berregei mila (40.000) eurorainoko 55 laguntza emango dira.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- a. Proposatutako proiektua UPV/EHU n egin behar bada, eskatzaileak funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izan beharko du UPV/EHUrekin eskaera aurkeztu duenetik proiektua gauzatu arte.
- b. Espainiar nazionalitatea edo egoitza Espainian izatea, edo bizileku iraunkorra edo iraupen luzekoa Espainian duten beste herrialde batzuetako nazionalak izatea.
- c. Karreraren erdialdean egotea. Ikertzaileen kasuan, doktorego ondoko etaparen eta irakasle titular edo baliokidearen mailaren artean egotea.
- d. 30 eta 45 urte bitartean izatea.
- e. Deialdian zehazten diren bateraezintasunik ez izatea.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

Tresna digitalaren bidez, honako dokumentazio hau bete eta/edo erantsi beharko da:

- Eskatzailea eta proiektua identifikatzeko oinarrizko datuak.
- Eskatzailearen ikerketa- edo sormen-ibilbidearen laburpena (gehienez 2.000 karaktere, espazioak barne).
- Proiektuaren laburpena (gehienez 2.000 karaktere, espazioak barne).
- Eskatzailearen curriculum vitae laburtua, azken 5 urteetan arreta berezia jarrita (gehienez 5 orrialde DIN A4).
- Gehienez ere bost ekarpen, eskatzailearen iritziz bere ibilbideko adierazgarrienak direnak. Horiek edozein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira, laburpen batekin batera, gaztelaniaz edo ingelesez.

- Eskatzailearen ekarpenen berri zuzena duten dagokion arloko ikertzaileen edo adituen erreferentziarako bi gutun gehienez. Gutun horiek inprimaki digitalaren bidez aurkeztu beharko ditu sinatzaileak, oinarri hauetako 6. puntuari adierazitako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.
- Proiektuaren memoria (gehienez 5 orrialde DIN A4), honako hauek barne hartuta:
 - o Eskatutako bekaren xede den proiektuaren deskribapena.
 - o Lan-plana eta gauzatzeko egutegia.
- Guztizko aurrekontu gordin banakatua, kasu bakoitzean aplikatu beharreko zergak eta atxikipenak barne.
- NANaren (bi aldeetatik) edo pasaportearen kopia.
- Eskatzailea Europar Batasuneko kide den beste herrialde bateko nazionala bada, Espainian gutxienez hiru urteko antzinatasuna duela egiaztatzea beharko du eskabideak aurkezteko duen egunean, eta, horretarako, Europar Batasuneko herritarraren erregistro-ziurtagiria eta errolda-ziurtagiria edo azken hiru urteetan Espainian bizi izan dela egiaztatzen duen lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko ditu. Bizileku-egiaztapen bera aurkeztu beharko dute Batasuneko herritarraren ahaidea direla adierazten duten eskatzaileek.
- Eskatzailea Europar Batasuneko kide ez den herrialde bateko nazionala bada, indarrean dagoen atzerriarraren nortasun-txartela aurkeztu beharko du, Espainian iraupen luzeko bizilekua duela egiaztatzen duena.
- Gizakiengan ikertzea, giza jatorriko laginak erabiltzea, giza enbrioi-jatorriko zelulak eta ehunak erabiltzea edo haietatik eratorritako zelula-lerroak erabiltzea dakarten proiektuek, bai eta saiakuntza klinikoak, animalien esperimendazioa, agente biologikoak erabiltzea, material genetikoa eskuratzeko edo trukatzeko edo inkesten edo datu pertsonalak atzemateko dakarten proiektuek ere, kasu bakoitzean aplikatzeko den indarreko araudian ezarritakoa bete beharko dute, eta onuradunei eta, subsidiarioki, atxikita dauden zentroei dagokien horiek zehatz-mehatz betetzen direla zaintzea.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHUko ikertzaileek aurkeztutako eskaerak zehar **kostuen %18a** jaso beharko dute aurrekontuan.

OHAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garapen arautegia argitaratzeko– jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.

Eskaerak aurkezteko epea:

2023ko maiatzaren 31ko 18:00ak arte

BBVA Fundazioaren webgunean dagoen aplikazioaren bidez egingo dira:
<https://www.convocatorias.fbbva.es/redleonardo/becas/es/step0>

Eskaerak UPV/EHUan aurkezteko prozedura:

Haien proiektua UPV/EHUan egin behar duten eskatzaileek beren eskaeraren aurkezpenaren berri eman beharko dute helbide honetara bidaliz: convocatorias.dgi@ehu.eus. Mezuari dokumentu guztiak erantsi beharko dizkiote Ikerketaren arloko Errektoreordetzan artxiba daitez.

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean eta moduan, Fundazioaren aplikazioa erabiliz.

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: **Inmaculada Arostegui Madariaga**
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa

UPV/EHUrekiko harremana:

- E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus

BBVA Fundazioarekiko harremana:

- E-maila: becas-leonardo@bbva.es

Informazio gehiago:

<https://www.redleonardo.es/becas/becas-leonardo-investigadores-creadores-culturales-2023/>